

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko ekainak 25 • 147. zka.

A photograph of two women standing outdoors next to a large tree. The woman on the left is wearing a dark, patterned outfit. The woman on the right is wearing a white two-piece outfit and has her hand on her hip. In the background, there is a building, a red car, and a bench.

Atzerritik Atxabaltara

Kanpotik gurera etorritako lau lagunen istoriotxoak kontatzen da erreportaian

Iturririk iturri: Iban Gonzalez Ekon taldeko abeslaria ■ Iritzia: Birginia Armentia

Zatoz gurekin, zatoz Institutura!



BATXILERGO GUZTIAK

- Izadi eta Osasun-Zientzien Batxilergoa.
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa.
- Teknologia Batxilergoa.

BIDE IREKIAK

Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

HIZKUNTZAK

Hizkuntzetan eskaintzarik zabalena:

- Ingelesa.
- Alemaniera.
- Frantsesa.
- Italiara.

MODALITATEAK ETA AUKERAKO JAKINTZAGAIAK

Modalitate eta Aukerako jakintzagaiak, besteak beste:

- Errepresentazio-sistemak
- Elektroteknika.
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Laborategi teknikak.
- Ekonomia eta Enpresa antolaketa.
- ...

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

III. MAILAKO MODULUA

- Sistema automatiko eta Programagarriak.

AURRERANTZEAN EZARRIKO DIREN HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ingurugiro-kimika.
- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.
- Automozioa.

MATRIKULA

Uztailaren 1etik 10era

 arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA

ARRASATE: Sta. Teresa, 25 • 20500 ARRASATE • Tel.: 79 83 00 / 79 44 47 • Faxa: 79 44 37 • E-mail: iarrasate@edunet.iber.net.es.
ARETXABALETA: Etxebarri auzoa, z/g • 20550 ARETXABALETA • Tel.: 79 79 00 / 79 79 43 • Faxa: 77 09 55 • E-mail: aretxainsti@jet.es.

Berri gehiagorako



ARRASATE
79 83 00 / 79 44 47
ARETXABALETA
79 79 00 / 79 79 43



Atxabaltarrok kanpokoan aurrean irekiak gara?



Maidar Revalo

(Ikaslea)

Bai, nik uste dut baietz. Kanpoko jendeak beste imagin bat dauka euskaldunon inguruan, baina gero hona etortzen direnean hori horrela ez dela ikusten dute.



Kepa Errasti

(Ikaslea)

Oso zabalak garela uste dut nik. Alemanak ikasle-trukaketa hemean izan zirenean oso ondo pasatu zuten. Negar ederak bota zituzten joate-rakoan.




Alvaro Urreta

(Langilea)

Hasieran itxiagoak garen itxura dugun arren, ezagututakoan zabalak gara.

Hona etorri diren kanpotarrek arazorik ez dagoela uste dut.



Felisa Eguren

(Etxekoandrea)

Baietz esango nuke, zabalak garela.

Ni ez nintzake kanpora bizitzera joango.



e s k u t i t z a



Aretxabaleta va bien

Azken bolada honetan ikusitako eta entzundako datuen arabera Aretxabaleta va bien. Herrian nabari da mugimendu bizia. Etxe berriak barra-barra egiten ari dira (saltzen direlako, noski), kaleetan automobil berri asko ikusten ari gara (SS-0000-BB), lantegiek FPII (maestro industrial) eginiko ikaslerik ezin omen dute aurkitu kalean, jaiotza tasa gora omen doa, etabar...

Horrela badirudi ere, gutariko atxabaltar askok ezin dugu gauza bera esan. Dirudienez, atxabaltan bailarako langabetu tasarik bajuenta dugu, eta nire zoritxarrerako ni tartean sarturik nago. Ni ez noa ondo. Auskalo zenbat gazte eta ez hain gazte gabiltzan bizitzeko (dirua irabazi eta independizatu ahal izateko) derrigorrezkoa den lan horren bila, edota zenbat eta zenbat dauden lan egoera oso larrian, hau

da: hileroko kontratuak soldata lotsagarriak...

Konstituzioak esaten digunez, denok omen daukagu lana izateko eskubidea, baina ez digu esaten nork daukan emateko obligazioa. Egoera horrela izanik bi gauzatxo esatea gustatuko litzaidake norbaiten erantzuna jasotzeko asmoz (alkate jauna, aukeran gomendagarriena).

Ez nago batere ados kooperatibak (MCC)-k darabilen politikaz. Sozietate gastronomikoekin parekatzen dut. Batak bertako langileen semeak bakarrik hartzen ditu kontutan, emaguzue besteoi ere aukera oportazio santu hori ordaintzeko. Besteak gizonetzkoak bakarrik hartzen ditu haintzakotzat. A ze pareta, karakola eta barea! SOLIDARITATEA!!!

Bestalde, eta garrantzitsuena, udaletxeari laguntza eskatu nahi diot. Nola? INEMetik Atxabaltakoak

garenokin zerrenda bat eginik (itxuraz 2-3 bakarrik) ea aukerarik duen herriko lantegiekin harremanetan jartzeko. Langileak behar dituenak jakin dezala non aurkitu. Hitz bitan esanda: BITARTEKARI izatea.

Bukatzeko, Atxabaltako lantegiei (MCC-z aparte) atxabaltarron alde apustu egitea eskatuko nieke, inguruko herrien inbasioa oso handia dela bai deritzot, horrek dakarren ondorioaz (prezioak igo, gu kanpora...)

Mesedez, INEM edo LANGAI-REN zain baldin bagaude horrela zahartuko gara. Gustora hartuko nuke bi puntu horien erantzuna eta beste edozein burutazio. NIK ERE ONDO IBILI NAHI DUT.

M.E.A
NAN 16301582

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

Erreminten mekanizazio eta fabrikazioari buruzko ikastaroa



Institutoko tailerra.

Aretxabaletako Institutuak "erreminten mekanizazio eta fabrikazioari buruzko ikastaroa" antolatu du mekanikako alorrean. Ikastaro hau Aretxabaletako Udaletxeko Ekonomia Garapenerako Zinegotziak bultzatu du. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Lan Sailak finantziatuko du, Europako fondo sozialaren laguntzarekin.

Ikastaroa profesionalki gaitu gabeko langabetuei eta langabezia denbora luzea daramatenei zuzenduta dago, batez ere I.E.E, B.B.B, L.H.1, L.H.-2, Moduluak edo Heziketa-Zikloko ikasketak egin dituztenei.

Zehaztasun handiko erremintak egiten diren lantegietan, jende gaitua eskatzen dute lanerako. Ikastaroaren helburua, lantegiek eskatzen duten kalitate-mailari eutsiko dioten langileak prestatzea da. Mekanizazio teknologikoari buruzko ikasketak teorikoak eta praktikoak izango dira, fresadora, tornoa, planeatzaile eta rektifikatzailea landuko dira.

Ikastaroa, aurtengo irailaren batean hasiko da, 99ko maiatzaren bukatuko dena. Arratsaldean izango da 1.000 orduko ikastaro hau. Matrikulatzeko epea ekainaren 30a arte izango da. Informazio gehiagorako 943 79 79 00 telefonora deitu.

Andramaixetako kartel lehiaketa

Andramaixak gerturatzeko doazela eta, azkenengo urteetan letxe, aurten ere kartel lehiaketa antolatu du Kultura Batzordeak.

Lehiaketa honetan, edozein atxabaltarrek har dezake parte. Aurkeztuko den kartelaren neurria 50x70 zentimetrokoa izan beharko da. Disketean ekarriz, berriz, A3an aurkez daiteke. Norberak erabaki ahal izango du lana egiteko erabiliko duen teknika.

"Andra Maixak 98, Abuztuak 14, 15, 16, eta 17 Aretxabaleta" izango da derrigorrez azaldu beharko den testua.

Aurkeztutako lanen artean, irabazle bakarra aukeratu da, 35.000 pezetako saria eskuratuko duena.

Lehiaketan parte hartzeko kartela uztailearen 10a baino lehen Kultur etxera edo eta Udaletxera bidali beharko da.



ANDRA MARI JAIK 1997
abuztuak 14, 15, 16 eta 17
aretxabaleta



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

Lyonel
Arquero

Dekorazioa:

Soraya
Arquero

S.T. Datorren
ikasturtea

Alemana, frantsesa, ingelesa,
umeentzako euskara

Matrikula: uztailearen 1etik 17ra

Informazioa: 943 79 00 69

Bulego orduak: 9 am - 12 pm

3 pm - 6 pm

S.T. Ingeleseko
ikastaroak
uztailean

(20 eta 30 ordukoak)

Maila guztiak/umeak eta helduak

Ekainak 29 - Uztaileak 19

Informazioa: 943 79 00 69

Bulego orduak: 9 am - 12 pm

3 pm - 6 pm

OSKAR

HARATEGIA



Loramendi, 1

☎ 943 79 71 69

IBARRA

ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77



MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11

ARETXABALETA

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

ARETXABALETA

Errekabarren-Loramendi bidea astelehenean zabalduko da

Errekabarren eta Loramendi lotzen dituen errepide berria astelehenean, hilak 29, zabalduko da. Bitartean, aste honetan zehar, Loramendi kaleko errepidea margotzen aritu dira.

Bide berriak hiru baden izango ditu abiadura neurtzeko, eta era berean oinezkoentzako zeharkagune funtzioa ere beteko dute. Aipatutako bide zati honek bi norabide izango ditu, bata gorunkoa, eta berunkoa, bestea. Bestalde, Errekabarren eta Andra Mari bitarteko errepide zatiak gorun-



Astelehenean zabalduko da Errekabarren-Loramendi errepide berria

tzako norabidea izango du bakarrik.

Loramendi kalean lineako aparkalekuak

Hemendik aurrera Loramendi kaleko aparkaleku guztiak lineakoak izango dira, beste zentzuan

zeudenak desagertuz. Honek, jakina, aparkalekuak gutxitzea ekarriko du baina Udaleko zinegotzia den Koldo Azkoitiak azaldu bezala, "kale berrian sortuko direnek beteko dute neurri batean behintzat hutsune hori".

Gaztetxeko etorkizuna eztabaidagai

Gaztetxeak aurrerantzean izango duen erabilera eta etorkizunaz eztabaidatzeko dagoeneko bi asanblada egin dira Gaztetxean. Azken bileran erabakitakoaren arabera orain arteko barrako funtzionamendu sistema aldatu egin da. Barra ez da aurrerantzean alkilerrean jarriko, eta lau pertsona txandatz arituko dira bertan. Josu Zaloñak Gaztetxeko asanbladako partaideak argitu duenez, "aldaketa hau gaztetxearen dinamika eramateko egokiagoa ikusten zelako egin da".

Gaztetxeari bizitasuna

Gaztetxearen erabilpena ezta-

baidatzeko, bestalde, uztailaren 4an beste batzar bat deituko da. Gaztetxearen etorkizuna eta dinamika izango dira eztabaidagai oraingo honetan. "Gaztetxeari erabilera eta bizitasuna eman nahi zaio, gaztetxea herritar guztiona baita, beraz, jendea partehartzera animatu nahi dugu", gehitu du Haritz Bedia asanbladako beste partaide batek.

Haritzek esan bezalaxe, gaztetxeari bizitza eman behar zaio eta hortan burubelarri saiatuko dira, beraz, "eskulanak egiten dakien jendea etor daiteke ikastaroak ematera, gaztetxeak bere erabilera izan dezan".

Atsedenerako egoitzak: epea zabalik

Etxean adineko pertsona bat duten familiei zuzendutako programa da aldi jakin baterako egoitzena. Bertan hamabost eguneko egonaldia eskaintzen da aiton-amonentzako egoitza batean. Programak badaramatza urte batzuk martxan eta orain arteko esperientzia eta jendearen partaidetza positiboa izan da. Aretxabaleta eta inguruko aiton-amonen kasuan Eibarrera joatea egokitzen zaie. Gai honekin interesatuta dauden familientzat programan parte hartzeko epea zabalik dago oraindik, eta informazio gehiago nahi izan ezker, edo eskaera bera egiteko, udaletxeko gizarte zerbitzuetan egin daiteke, 943 79 10 00 telefonoan.

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETAKA

Portasolgo jaiak antolatzea zail ikusten dute PAGLEkoek



PAGLEk zailtasunak ikusten ditu aurten Portasolgo jaiak antolatzeko

Antolatzaile gehiago egon ezean, ez dira Portasolgo jaiak ospatuko

San Lorentzoak, Portasolgo jaiak bezala ezagutzen ditugunak, egoera aldatu ezean behintzat, aurten ez dira ospatuko.

Orain arte PAGLE, Portasolgo Auzoko Gazte Lagun Elkarteak antolatu izan du hiru egunetako festa hau, uztailea erdialdean ospatu izan dena. Taldeko partaide batek adierazitakoaren arabera "orain arte gogoz eta ilusioaz aritu gara jai hauek antolatzen. Baina Portasolgo jaiak mantentzea nahi bada, herritar

berrien partaidetza beharrezkoa ikusten dugu. Aurrerantzean, jai hauek antolatzen jarraituko duen jendearen laguntza konkretuki".

Pasa den ekainaren 2an, PAGLEk batzar bat antolatu zuen gai honi irtenbide bat aurkitzeko. Herri osoari zuzenduta bazegoen ere, zoritxarrez, ez zen inor bertara gerturatu.

Horrela bada, erabaki bat hartu ezean, aurten ez dira San Lorentzo jaiak ospatuko.

Biblioporrak gida kalean da

Eusko Jaurlaritzak, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako Udal liburutegiaren eskutik, "Biblioporrak 1998" gida kaleratu du.

Hauetan, adin bakoitzerako gomendatzen diren liburuak azaltzen dira, bai euskeraz, bai erderaz ere idatzita daudenak.

Oporretako liburu hauei buruzko informazioa liburutegian eta kioskoetan aurki daiteke. Gainera, eskoletan ere emango da. Guztira 1.000 gida inguru banatuko dira.

Biblioporrak 1998 gida honen diseinua Elena Odriozola donostiarak egin du.



Gida liburutegian eta kioskoetan egongo da eskuragai



Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

Loramendi 10 ☎ 943 79 81 78
ARETXABALETA



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Akordeoia hartuta Finlandiara

Jugoslaviako "Drustvo Prijateija Muzike" akordeoi orkestrak bisitatuko gaitu uztailean

Europara joanak badira ere, 3.500 kmtako ibilbide luzea lehen aldiz egingo du Juan Jose Or-bengoaren orkestrak. Oraingo honetan Finlandiako Ikaalinen herrian ospatuko den "Sata-Hame" akordeoi jaialdira gonbidatu dituzte. Ekainaren 30ean irtenda autobusez egin beharreko bidai luza izango dute aurrez-aurre: Hamburgo, Copenhage, Estocolmo, Turku (Finlandia), eta bukatzeko Ikaalinen.

Afizio gogorra finlandiarrek

Hamabi herrialdetako orkestrak 70 kontzertu emango dituzte lehenxego aipatutako jaialdian. Honek, jakina, finlandiarrek akordeoia jotzeko duten zaletasuna agerian uzten du.

Atxabaltarrak ahalik eta maila onena erakusten saiatuko dira jaialdian, nahiz eta Juan Josek

taldea bere momenturik onenean ez dagoela onartzen duen, "ez ditugu nahi beste entsaio egin, eta orkestrako asko arrazoi desberdinak direla eta, ezingo dira joan". Gainera hasieran bi ekitaldi egin behar zituztela esan zieten, baina oraintsu jakin dutenez, kopurua seira igo da.

Orkestrak ezin izan du aurten bidaiarako dirurik atera, horregatik Andramaixetan txozna jartzeko asmoa dute bidaiako gastuen zati bat ordaindu ahal izateko.

Jugoslaviako orkestraren bisita

Uztailean "Drustvo Prijateija Muzike" Kanjiza herriko orkestra jugoslaviarraren bisita jasoko dugu. Hilaren 18an herriko parrokiara kontzertua eskainiko dute eta lau egunetan zehar egongo dira gure artean.

Azatzako eliza txukunduta

Teilatua eta elizpea konpondu, barruko hormak margotu eta lurrean pinkia bota ondoren, eraberritua gelditu da Azatzako San Juan Bautista eliza. Lanok sasoi aproposenean bukatu dira, auzoko jaietarako, beraz, auzotarrek dotore aurkitu dute eliza San Juanetako elizkizunetan parte hartzean.

8,5 milioi inguru suposatu duen obra, Gipuzkoako Gotzaingoak %40a, Udalak %10a eta azkenik auzoak berak %30 finantziatu dute. Garrantzitsua eta eskertzekoa izan da azken hauen aportazioa.

Beste auzoetako elizak ere poliki-poliki konpontzen ari dira. Hurrengo Izurietako elizaren erreteila egingo da eta Koruetakoaren barrualdea margotzeko asmoa ere badago.

Parrokiatik Londresera

Londres, Paris eta Bruselas bisitatuko dituen bidaiaria antolatuko duen parrokiatik abuztuaren 1etik 10era bitartean. Iaz Portugal eta Galiziara egin zen bidaiak izan zuen arrakasta kontuan hartuta, aurten ere jendeak ondo erantzungo duela uste da.

Bidaiaria autobusez egingo da. Tartean ferry-a erabiliko da Ingalaterrara pasatzeko. Hemendik Bruselarako bidea, berriz, Eurotunetik egingo da. Bidaiaren prezioa 105.000 ptakoa da bidaiari bakoitzeko. Izena emateko 943 79 66 95 (Jose Luis) telefonoan egin daiteke.



Ekainaren 30ean abiatuko da akordeoi orkestra Finlandiara

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

BEGIBO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 93 21

*Carmen
Fernandez*

ABOKATUA

Belorrieta Auzoa, n° 14 - 4° A
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: (943) 77 05 94
Fax: (943) 79 65 21



“Gurasook laguntzaileak izan behar gara, baina ez egile, bigarren lerroko begiraleak, aholkulariak baino.”

Ai ene! gure seme-alabak oporretan

Ikasturtea amaitzear dagoenez eta ikasleak udako oporren atarian aurkitzen direnez, guraso gehienek kezka da, seme-alabek horrenbeste denborarekin zer egingo ote duten eta batez ere ikasitako gutzia ahaztuko ez ote zaien.

Egoera honen aurrean, beharbada, irtenbide gehiago aurkitu behar diogu aisialdia antolatzeko arazoari. Baina ez da hain erraza oporretan gure seme-alabak lan egiteko ohiturak mantentzea. Helburu hau lortzeko garrantzi handia du gurasoen jokabideak. Helduok ere oporrak izango ditugula kontuan izanik, gure seme-alabei denbora pixka bat eskaintzeko aprobe txatu beharko genuke.

Honek gure seme-alaben prestakuntza, gaitasuna eta beharbada euren zailtasunak hobeto ulertzen lagun diezaguke.

Oporretan egindako lana ez da bapatean edo presaka egitekoa, bere helburua ikastearena eta gai batzuetan hobetzearena izango litzateke,

honek suposatzen du, lana lasaiago eta giro atseginago batean egin dezaketela.

Gurasook izango genuke, gure seme-alabek eginkizun batzuen aurrean zein jarrera dituzten ezagutzeko eta baita zein baliabide erabiltzen dituzten ezagutzeko aukera. Informazio hau askoz ere baliogarriagoa da guretzat. Horrela konturatuko garelako behar diren oinarriko trebetasunak dituzten edo ez.

Eginbehar nagusia izango litzateke motibatzea eta lan orduak antolatzea, gazteentzako hain zaila den konstantzia hori mantentzea helduari dagokio. Gurasook laguntzaileak izan behar gara, baina ez egile, bigarren lerroko begiraleak, aholkulariak baino. Laguntza hau baliogarria izateko ez da beharrezkoa gurasoen jakintasuna baina bai haien dedikazioa.

BIRGINIA ARMENTIA

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABAETA

ARETXABAETA

ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 943 79 17 53
ARETXABAETA

Iber

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 79 24

**Etxabe
harategia**

Durana 4
☎ 943 79 16 61

Iban Gonzalez

Ekon taldeko abeslaria

Musika egitea, talde batean abestea eta lehen diska kaleratzea bere bizitzako ametsa da 25 urteko Iban Gonzalezentzat. Atxabaltarra izan arren, Arrasaten eman du bere bizitzako denborarik gehiena. Bera dugu Arrasateko Ekon taldeko abeslaria. Astebukaeretan Arrasate telebistan kameralari lanak egin eta kontzertuak eskainiz jo ta ke dabil. Horregatik asteguneko egunak aprobetxatzen ditu, Zarautz aldera joan eta hain gustokoa duen kirola, surf-a, praktikatzeko.



- Musikak zure bizitzako zati garrantzitsua suposatzen du. Nola hasi zinen?

- Arrasateko Iskanbila taldean hasi nintzen hamabost bat urte nituela, gitarra jotzen. Gero taldea desagertu egin zen eta Ekonen abesteari ekin nion. Betidanik gustatu izan zait musika, mota guztietakoa orokorrean.

- Iazko abenduan taldeak lehen diska kaleratu zuen, "Zurrunbilo kaotikoa" izenekoa. Zer moduzko esperientzia izan da.?

- Diska eskuetan izatea zoragarria da, hala ere, grabaketa lanak ez zaizkit batere gustatu. Oso gogorra izan da. Elkarren grabatu genuen diska, eta hau Euskadi mailan dagoen estudioarik onenetarikoa izan arren, momentu txarra aukeratu genuen. Alde batetik Elkarren uholdeak izan zituzten, bestetik guk ordenadorez sartutako efektu asko erabiltzen ditugunez, arazo asko izan genituen. Hilabete baino gehiago egon ginen diska grabatzen, oso gogorra egin zitzaidan.

- Ze motako musika egiten du Ekonek?

- Oinarria trash-a izan daiteke,

"Abestietan gaur egungo arazoei irtenbide bat ematen saiatzen gara, gizarte aktibo bat inplikatu asmoz"

baina taldekideok talde desberdinentatik gatozenez, musika fusio bat dela esango nuke, trash, rap... Zati batzuk oso azkarrak dira eta efektuetatik sortutako musika industrialak ere lantzen dugu.

- "Zurrunbilo kaotikoa" diska, nola definituko zenuke?

- Hamaika abesti eta CDrom pista bat batzen ditu bere barnean. Azken honetan kontzertuak eta grabaketako irudiak daude. Diskak aurreko maketa batetik irten du, abesti batzuk aldatu egin ditugu, beste batzuk berriak sartuz. Gaiak denetarikoa daude, Hego Ameriketako arazoak azaltzen dituztenak esaterako, baina

orokorrean gaur egungo arazoak isladatzen ditugu, hauei irtenbide bat emanez. Gizarte aktibo bat inplikatu nahi dugu, punk garaiko abesti askoren alderantziz.

Bestalde, abestiak euskaraz izateari garrantzia ematen diogu eta ildo horretatik jarraitu nahi dugu aurrerantzean ere, nahiz eta kanpora begira asko mugatzen duen.

- Kontzertuetan, bestalde, itxura bereziko janzkeraz azaltzen zarete, frak, txistera... Suposatzen dut bere zentzua izango duela horrek...

- Bai, hala da. Ekon taldeak berak kontraste pila bat ditu musika aldetik eta gure janzkeraz ere hori adierazi nahi dugu, seriotasuna alde batetik, kontrakoa bestetik.

- Eta udako agenda nola daukazue?

- Oraindik zulotxo batzuk betetzeko falta zaizkigun arren, kontzertu pila ditugu emateko. Euskal Herri mailan mugitzen gara, Nafarroan kontzertu ugari eman ditugu azkenaldian eta Iparraldean gelditzen zaigu.

- Musikatik bizitzea gustatuko litzazuke?

- Bai, nire ametsa da. Ez agian musika talde batean, baina bai musikatik, irrati bateko musika irratsaio batean lan eginez esaterako... Taldekoa afizioa izaten jarraitzea nahi nuke soilik, beharra bihurtzen bada aldatu egiten da eta.

- Bukatzeko, zerk betetzen du zure denbora librea?

- Astebukaeretan ez bezala, astegunetan nahikoa denbora izaten dudanez, Zarautz edo iparraldera surf-a egitera joaten naiz. Iaz hasi nintzen eta aurreko ikasiko dudala proposatu diot neure buruari.



sofa leku

a. eme... interiores

centro hogar muebles



grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92

Atzerritik Atxabaltara

Gurean badira munduko txoko ugariatik etorri diren kanpotarrak: Grezia, Colombia, Karibe, Polonia, Ingalaterra, Italia, Portugal...

Ohitura eta hizkuntza berri batekin aurkitu dira hemen, hala ere, gehienek lana aurkitu dute eta gure artean gustora daudela jakin dugu.

Horietako lau dira gaurko gure gonbidatuak.

Kanpotik iritsitakoek kopuru esanguratsua suposatzen dute gure herriko erroldan. Etorkinen kopurua milatik gorakoa da. Gehienak Estatuko komunitateetakoak dira, 60. hamarkadan baldintza ekonomikoak eraginda heldutakoak. Neurri txikiagoan izan arren, Estatutik kanpo etorritakoen artean, Europa, Ipar-Hego eta Ertamerikarrak daude.

Gaurko txoko honetara gonbidatu ditugun lau protagonistak herrialde desberdinetakoak dira. Europar kontinentekoak hiru eta Karibekoa, itsasoz bestaldekoa bestea.

HIZKUNTZA ETA LANA

Guztiak ere oso ondo moldatu dira hemengo bizitzara, herrialdeek euren artean desberdintasun ugari dituzten arren; hizkuntza,



“Leku guztietan oso ondo tratatu naute, baina nire jaioterrira oraintxe itzuliko nintzateke”

Ana Mercedes Tavarez (Errepublikak Dom.)

Bere jaioterrira utzi ondoren, Karibeko Errepublika Dominikarra, Valladolidera etorri zen lehendabizi Ana Mercedes 1985ean. Karibeko klima tropikala ez zen batere ona berak duen asma gaixotasunerako, beraz, medikuak beti gomendatu izan zizkion Espainia bezalako lekuak. Gaur egun bi aukera daude bertatik irtetzeko, ezkondu edo lan kontratuaz, “ni irten nintzenezan samurragoa zen”, dio.

Gizona Valladolidekoa da, baina lana hemen aurkitu zuenez, orain hamaika urte Bergarara pisu alokatu batera etorri ziren bizitzera. Gero 89an Aretxabaletan pisua erosi zuten. Ezkondu ere Aretxabaletan ezkondu ziren; eta 25 urteko seme bat ere badaukate.

Hemengo klima ere ez ei da egokiena asma dutenentzat, hala ere, tratamenduaz ondo moldatzen dela esan digu.

Santiago de Los Caballeros bere jaioterrian eta Errepublikako bigarren hiri garrantzitsuenetan tela lantegi batean egiten zuen lan. Hona etorritakoan udaletxetik etxerako laguntza zerbitzuan lan egin izan du eta tabernetako garbiketa lanetan ere aritu da. Tamalez gaur egun langabezian dago, han eta hemen ateak joka ari da nonbaitetik deituko duten zain.

Bere herrialdeko bizitasuna eta musika faltan botatzen dituen arren, hemen beti oso tratatu ona izan duela azpimarratu digu, dendetan, eritetxean... Hala ere, birritan pentsatu gabe joango litzateke orain 7.000 km.ko distantziara dagoen irlatxora.

kultura eta ohitura aldetik batez ere.

Hasiera batean hizkuntza izan da oztopo nagusia, horretan bat datoz europako estatuetatik datozen Kester, Georgia eta Guiseppe. Hala ere, beharrak eraginda poliki-poliki ikasi behar izan dute hizkuntza berria. Hiruren kasuan lana aurkitu dute gainera. Giuseppe Giletto italiarrak zorteak ere asko jokatzen duela garbi du lana bilatzerako orduan, "ni etorri eta lehen hiru urtetan batetik bestera ibili nintzen lanean, Arrasateko enpresa batean fijo hartu ninduten arte". Georgia ingeniariak doktorea da eta hau ere bat dator zorte kontua aipatzerakoan. "Ni ere azkar hasi nintzen lanean, lehenengo Gara-gartzan eta azken hamar urtetatik hona Coprecin".

Kesterrek, berriz, bere ama hizkuntzari esker, Eibarko akademia batean egiten du lana.

Hizkuntza arazorik izan ez arren, Ana Mercedes errepublikarrak arazo gehiago izan ditu lana aurkitzerako orduan. Bere ustez lan merkatua oso zail dago hemen. Udaletxetik etxetik laguntza programan aritu zen eta baita tabernetako garbitzaile lanetan ere. Gaur egun ordea lan barik dago, han eta hemen saiatu da ateak jotzen baina zorte haundi barik. Dena dela, aldizkarian aterata zera esaten du: "ia ba honek lana lortzen laguntzen didan".

HERRIMINIK?


Herrialde batetik bestera mugitzearen arrazoiak anitzak dira, horien artean arrazoi ekonomikoak faktore garrantzitsuenetakoa da. Faktore hori ez da nagusitzen gaurko gure pertsonaien kasuan, ordea. Georgia, Kester eta Guiseppe, neska-laguna edo mutil lagu-

na hemengoak izateak mugitu ditu hona. Kester ezik hiritik datoz gainontzekoak eta herri txiki batera ohitzea nahiko gogorra egin zaio Georgiari esaterako.

Dena dela, orokorrean oso gustora daude, eta jendearen tratua ona izateaz gainera, une latzetan ere laguntza izan dutela gehitzen dute. Ana Mercedesek dioenez, "jende noblea aurkitu dut hemen".

Herrimina? "bai beti sentitzen da, baina hau bigunagoa da hemen zure familia duzunean", dio Georgiak. Dena dela, Ana Mercedesek bihotzez botatzen du faltan Karibeko musika eta giroa. Hara joateko arazorik haundiena duena bera da, besteek etxetik gertuago daudenez, ahal dutenean bertara joateko aprobetxatzen dute, oportetan ez bada ere. Ana Mercedes, berriz, 7.000 kmra dago bere jaioterritik. Bidaia garestia da nahi den bestetan joateko.

"Gustora sentitzen naiz hemen"



Kester Lovett (Ingalaterra)

Kester dugu gaurko protagonistetatik gazteena eta herrian denbora gutxien darimana. Urte eta erdi bada, 24 urteko mutil hau Ingalaterrako Devon probintziatik Aretxabaletara etorri zena. Atxabaltako neska-laguna ezagutu zuen Ingalaterran, eta hasieran hilabete batzutarako etortzea pentsatu zuen, esperientzia berri bat izateko aukera aprobetxatu nahian.

Momentu honetan Eibarko akademia batean ingelesa irakasten dihardu, atsegin du lana, "ikasleengatik batez ere", dio. Berak ingurugiro ingieneritza ikasketak burutu zituen Ingalaterran eta han oso modan dagoen ikasketa ei da hau. Egia esan gustatuko litzaioke gai horretan lana aurkitzea. Oraindik, jakina, hizkuntza ondo menperatzea nahi du. Hala ere, erdera tutik ere jakin barik etorri zela kontuan hartuta, urte eta erdian erdaraz defenditzeko gai da. Euskara ikasten ere saiatu da, orain lanak aukera gutxi eskaintzen dion arren.

Momentuz gustora dago gure artean, lekua zoragarria dela diozku, mendiak ere asko gustatzen omen zaizkio eta inguruko mendietan izan da dagoeneko.

Noiz arte geldituko den galdetu diogunean, sonburuak igota "I don't know" erantzun du. Berak ere ez ei daki, "orain urte batzuk Euskal Herrira etorriko nintzela pentsatzea ere..."

Georgia Theodorou (Grezia)

Orain 10 urte heldu zen Georgia Theodorou bere senarrarekin batera Atxabaltara. Euren seme-alaba biak hemen jaio dira, eta euskaraz, erdaraz eta grekeraz ere badakite. Gizona ondarrutarra bada ere, Frantzian doktoradutza ikasten ari zirela ezagutu zuten elkar.

Hemen ezkondu ziren eta laster aurkitu zuen lana Georgiak. Grezian ingieneritza ikasi ondoren, Frantzian doktoratu zen. Honek jakina, aukera zabalagoa eskaini zion lana aurkitu ahal izateko, dena dela, hasieran erdaraz tutik ere ez zekiela eta gogorra izan zela azpimarratzen du. Hala ere, hemengo jendea beti laguntzeko gertu aurkitu du. Egun Coprecin dihardu lanean.

Herrialde berri batera egokitzea bestalde, ez zen horren gogorra izan berarentzat, dagoeneko ohituta baitzegoen kanpoan bizitzera. Hala ere, gehitzen du, “aldaketa gogorragoa izan zen herri txiki bateko bizitzara ohitzea, ni Atenasekoa bainaiz”. Akaso hizkuntzarekin batera horixe izan zen berarentzat gogorrena. Dena dela, berak esan bezalaxe, “ni ez naiz atzerritarra sentitzen”.

Herriminik sentitzen duen galdetzean, baietz erantzun du, gabonak moduko data konkretuetan bereziki. Baina familia bertan izateak asko laguntzen du.




“Ez naiz atzerritarra sentitzen”

Giuseppe Giletto (Italia)

Italiarra dugu, Piemonteko Turin hiriburukoa. 87an, orain hamaika urte, etorri zen gure artera, hau ere hemengo neskalaguna ezagutu ondoren. Hasierako urteetan lan txikiak egiten ibili bazen ere, gaur egun lan kontratu indefinitua du Arrasateko enpresa batean, baina hori zorte kontua ere izan zela azpimarratzen du.

Hasieran hizkuntzarekin txarto moldatu bazen ere, beharrak eraginda berehala ikasi behar izan zuen. Zerbait faltan botatzen badu familia da. Hala ere, ahal dutenean joaten dira bertara. Hona heldu zenean, bestalde, jendeak hasiera-hasieratik emandako konfidantza da gehien harritu zuena. “Kanpotarra izanda gainetik badirudi konfidantza gutxiago izan behar dutela zugar”. Kontatu digunez, italiarrak mesfidantza haundiagoa ei dute euren artean, nahiz eta, beharbada, zabalagoak izan. “Hasieran esaterako arraroa egin zitzaidan denda batean erropa etxera eramaten uztea”. Konparazioak egiten hasita, hemengoak juergista samarrak ei gara, eta bere iritzian hangoen aldean asko edaten dugu, gainera. Europako herrialde gehientsuenetan letxe, italiarrek ere goizago etxeratzeko ohitura dute.

Bere curriculumaz bukatzeko, Giuseppe ezkondu eta bi seme-alabaduna da eta hemen bizitzen jarraitzea da bere nahia.



“Hasieratik eman didate konfidantza haundia”

Giroz betetako haur txirrindulari festa

Ekainaren 14an ospatutako haur txirrindulari festan, 40 partehartzaile egon ziren. Lehenik, Aretxabaleta eta Eskoriatza bitartean itzulia eman zuten haur, guraso eta antolatzaileek.

Ondoren, ginkana frogak hasi ziren. Honetan, bost eta hamalau urte bitarteko neska-mutikoei bereien trebetasuna erakutsi ahal izan zuten. Beste batzuen artean, zintzilikatutako aroak hartu eta zutabe batetan sartuz.

Nagusien taldean, berriz, puntuazio onena lortutako sei partaideek froga errepikatu zuten. Oraingo honetan, goilare batean bonboi bat jarri eta ahoan eramanez.

Maila bakoitzeko irabazleez aparte, beste bi sari berezi ere banatu ziren. Bata Lore Marentzat, partaide gazteena izateagatik.

Bigarrena, berriz, Jon Barrenetxeak jaso zuen, ginkanako frogak patinetan egin zituen eta.



40 partehartzaile egon ziren haur txirrindulari festan

Uztailean Arlutz futbito txapelketa

Ekainaren 29an hasiko da aurten Arlutz futbito txapelketa. Aurreko urtean moduan, uztail honetan ere arratsaldeko 5,30etan hasiko dira partiduak.

Txapelketa honetan 20 taldek hartuko dute parte.

Gazteentzat ere txapelketa

Berrikuntza moduan, gazteentzat

futbito txapelketa ere antolatu du Arlutzek, 13 urte arteko haurrei zuzenduta dagoena. Hauen partiduak eguerdiko ordu bietatik hiru eta erdietara bitartean izango dira.

Izena eman duten taldeak honako hauek izan dira: Beбето, T.P.P, Peña Abreo, Mi sargento, Nagitarrak, Komando tamagotxi, Lucifer, eta azkenik Peñakulo klub.

Pala Txapelketako bigarren fasea

Dagoeneko amaitu da pala txapelketako lehenengo fasea. Honetatik zortzi bikote klasifikatu dira, ekainaren 27an, goizeko bederatzia eta ordu biak bitartean final laurdenak jokatuko dutenak.

Klasifikatutako zortzi bikoteak, honako hauek dira: Josu eta Jon Sarasua, I.Agirre eta X.Basabe, Gaizka eta Ugutz Garitaonaindia, I.Oskoz eta X.Jausoro, R.Agirre eta M.Uribebeberria, S.Roman eta J.M.Isturiz, M.Uribebeberria eta J.Urkia, eta azkenik, I.Irureta eta M. Alberdi.

Final laurdenetatik klasifikatzen diren bikoteek, uztailaren 2an, goizeko 9 eta 10etan final erdia jokatuko dute. Finala, berriz, uztailaren 5ean izango da goizeko 10etan. Egun honetan bertan, 3. eta 4. postuak ere jokatuko dira.

Peña Zubi txapelketarik ez

Azkenengo urteetan Peña Zubik haurrei zuzendutako futbito txapelketak antolatu baditu ere, datorren uztailean ez dira ospatuko. Herritik kanpo antolatzen diren udalekuak direla eta, txapelketa honetan partaidetza eskaxa izaten dela adierazi zigan antolatzaileetarikoa batek.

Horrela ba, arazo honi irtenbide bat aurkitu asmoz, baliteke futbito txapelketa hau irailean ospatzea.

**ARETXABALETAKO
KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI
ELKARTEAK TELEBISTAN EGUN
ERDIZ LAN EGITEKO** pertsona bat
kontratatu nahi du

Baloratuko da:

- **Irudi eta soinu ikasketak** izatea edo esperientzia.
- **Euskara maila.**

Uztailaren 7a baino lehen curriculumak Aretxagazetara ekarri (kultur etxea) edo 151 postakutxatilara bidali.

Maria Elena Llorente

“Aurten Behobia-Donosti egiteko asmoa daukat”

Gaur egun herrian dagoen emakume korrikalari bakarra da Maria Elena Llorente.

Arratsaldean lan egiten du, eta goizez etxeko gauzak ere egin beharra dauka. Horregatik, ahal duenean tartetxo bat aprobetxatzen du korrika egiteko. Egun daukan baino denbora gehiago izatea gustatuko litzaioke, entrenamendu sakonagoak egin ahal izateko.

• Noiz hasi zinen korrika egiten?

Dagoeneko pasa dira 13 urte nere lehen urratsak egin nituenetik. Baina betidanik gustatu izan zait kirola.

• Zerk motibatu zintuen kirol hau praktikatzen hasteko?

Nere senarra betidanik izan da kirolzalea. Bera bizikletan ibiltzen den arren, neuri korrika egitera animatu ninduen. Hasieran kosta egiten da, baina orain ezin naiteke korrika egin gabe egon. Behin hasi zerkero, oso zaila da uztea.

• Eta lasterketetan korritzera?

Maiz korrika egiten nuenez, interesgarria iruditu zitzaidan lasterketa herrikoietan parte hartzea. Orain dela zazpi bat urte egin nuen neure lehengo lasterketa.

Kross hauetan ez naiz postua egitera joaten, froga amaitzera baizik. Eta ahal bada behintzat, neure marka hobetzera.

• Urteak pasa ahala, denboran



“Oso ingurune politak dauzkagu korrika egiteko”

hobekuntzarik igerri duzu?

Egia esan, zazpi urte hauetan lasterketetan egindako markak mantendu ditut. Orain samurrago egiten dudan arren, denbora ez dut hobetzen. Aurrerantzean ere mantentzeaz konformatzen naiz.

Gainera, orain arte egindako denborak pertsonalki ondo daudela iruditzen zait. Urkuluko krossean adibidez 34 minututako denbora

egin nuen.

• Zenbatekoa da korrikan egin duzun distatziarik luzeena?

15 kilometrotakoa. Baina aurten Behobia-Donosti egiteko asmoa daukat. Horretarako prestatzen ari naiz.

• Zenbat denbora eskaintzen diozu entrenatzeari?

Martitzen, eguen eta domeketan egiten ditut entrenamenduak. Ez daukat denbora askorik honetan ibiltzeko, beraz ahal ditudan tartetxoak aprobetxatzen ditut.

• Zein motatako entrenamenduak egiten dituzu?

Korrika bakarrik egiten dut, ez dut gimnasiarik sartzen. Neure kabuz aritzen naizenez, egunaren arabera gehiago edo gutxiago egiten dut.

Normalean bakarrik entrenatzen naiz, batzutan senarrak laguntzen didan arren.

• Eta non entrenatzen duzu?

Ingurune honetan oso leku politak dauzkagu korrika egiteko. Neuri konkretuki, Urkulu eta bere inguruak gustatzen zaizkit. Hala ere, Eskoriatza aldera ere jotzen dut.

• Lesiorik izan duzu?

Garrantzi handiko lesiorik ez. Behin edo behin izan dut minen bat. Hau nolabaitera ekiditzeko, hilean behin masajistarena joaten naiz.

• Maria Elena, noiz arte jarraitzea pentsatzen duzu?

Gorputzak ahal duen arte.

MIREN

Chunak eta berritasunak

salneurri bereziak

Murubide, 1 ♦ 943 79 67 97

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



Esko Sport

**Kirola eta Sport
moda Leintz
Bailaran**

Intxaurtxueta, 5

☎ 943 71 52 96 ESKORIATZA

Larunbat arratsaldetan
zabalik

Aurten ere San Juan

Orain dela urte bi artikulutxo bat eskribidu nuen Aretxagazetarako eta orduko gaia gaurko bera zen. San Juanetan Aretxabaletan kantetan den kantuaeren zati baten gainean jardun nuen orduan be. Hauxe da hori zati-tiori:

Ibai guztiak agortu dira
Arrain gaixuak egarriz
Datorren urtian mutikotxuak
Nun egingo dute igari.

Orain dela urte biko artikuluan beste kantu bateko zati bat ipini nuen konparetako. Ha kantua 1930eko *Euzkadi* egunkarian topatu nuen eta Eibarko ikastoletako umeez kantetan ei zuten San Juanetan:

Ibai guziak agortu dira
Arrai goxoak agiri
Mutil txikiak udaberrian
Nun egingo dute igari.

Horreitatik zein ete da zaharra edo zein ete da orijinala? Beharbada bietatik bat bera be ez. Aurten, barriz, urrintxoago fan gara, batez be denporan. Lehengo batean andreak liburu batean antzeko koplak bat topatu zuen. Liburuaren izena hauxe da: *Iztueta`ren olerkiak*, J. Garmendia Arruabarrenaren edizioa, 1978. Juan Garmendiak liburuan dioenez, koplak ez dira Iztuetarenak; baina Iztuetaren papelen artean zeudenez liburuaren erasnskinean sartzea erabaki zuen. Iztueta bizi izandako sasoiaren egindako koplak ei dira eta Iztueta 1845ean hil zen. Kuriosoena, barriz, ez da hori. Horreitan kopletan ez da San Juanik aitaketan, sagardoaren gainean egindako koplak dira. Guretako hain ezaguna den 18. koplak ulertu ahal izateko aurrekoak eta ostekoak irakurtzea beharrezkoa da. Denera 25 koplak dira, baina aukeraketa txiki bat egin dugu. Hona hemen horreik koplak:

COPLAS A LA SAGARDOA

1

Kanpotar Jaunak jakin dezaten
esan nahi det nik egia
gurdi bat sagarrari bota diote
illabeteko euria.

3

Tolosar jaunai esten diegu
atera dezatela aurpegi
emendik aurrera ez dedin
Goieritarrik agintari

8

Kupela zar bat baldin banauka
arretxez zeukak errua:
urez bete eta artuko nikek
ardoarentzat dirua.

10

Negua uda egiñik dabil
probisioak egiten
ibai guztiak bilduko ditu
ez bada proibidentzia artzen

12

Zer uste dezu dabiltzala oek
zure osasunaren billa?
Ez baizike erasteagatik
milla dukati, bi milla.

13

Sorregieta jauna aurtengo urtean
probisioen lagun degu:
ibai guztiak bilduko ditu
ez bada probidentzia artzen

14

India-mendi gogorretatik
ateratzen du urrea
eta Tolosan ibaietatik
Indian baño obea.

15


Ormaiztegiko erreka txarra
ta Azpeitiko ibaia
jzer uste dezu artzen diziela
ur arreakin dobloia!

16

Donosti-aldean egin dituzte
sagardo guztiak puruak
Tolos onetan bildur dirade
galdu ditezten buruak.

17

India onak aurten Tolosan
zertara joan itxasoza*
nai adina diru artuko bada
preso dagoan ur-ardoz?



Sagardoaren gainean egindako koplak dira

18

Ibai guztiak agortu eta
arrai guztiak ageri;
datorren urtian non egingo dute
mutill txikiak igeri.

21

Sagardo onak egitekotzat
gizonak ditu epelak,
ur arreakin betetzeiztistek
Tolosan diraden kupelak.

22

Bost milla ezkutu dagoeneko
aurten ibaiak eman du;
datorren urtean zer aditu dedin
jendea bildurrik hartu du.

25


Viva Sagardo, Viva Sagardo,
Kupelan preso zaudena
ibai guztiak agortu eta
sartu zaituzte barrena.

**Itsasora, inprimatzerakoan egindako hutsa beharbada. Oharra: ortografian c, qu, gu, v...aldatu egin ditut samurrago leiduntako.*

Jon Antxia

I

akin dakigu 1936-1939ko Gerra Zibila tragedia latza izan zela, bertan zoritxarrez, pakea etorri beharrean garaipeña etorri zen, eta ondorioz, irabazleak eta, zer esanik ez, galtzaileak suertatu ziren gatazka haretatik.



Felix Urtubi abiadorea

Eta badakigu, historia irabazleek idazten dutela. Galtzaileoi isiltasun publikoa gelditzen zaigu, gure historia, familia eta zirkulu kontzientziatu txikietan zabaltzea tokatu zaigu.

Arestian azaldutako motiboengatik, oraingo honetan Aretxabaletako seme ospetsu eta era berean ezezaguna ekarri nahi dugu kontu zahar hauetara, eta guzti hau, Aretxabaletako Argazki Taldeak, Bergarako "Ondo Bihurtu" taldearekin batera antolatutako erakusketa dela eta.

Gure protagonista, **Felix Urtubi** abiadorea da. 1936an, faxisten matxinada hasi zenean, eta Errepublikari leial azalduz, Marokotik alde egin zuen Breguet XIX izeneko hegazkinean.

Talavera-ko erretiradan Urtubiren hegazkin taldeak beste talde faxista batekin tril egin zuen; ekin borrokan eta hegazkinak su hartu ondoren lurrera bota zuten.

Galdutzat eman zuten gure pilotoa. Handik aste betera hor non agertzen den berriz ere alde errepublikanoan; kontatzen dutenez, parakaidasari esker lurra hartu zuen, arropa zahar batzuk eskuratu eta asto bat lagun zuela, baserritar gisa igaro zuen frentea. Berriz ere aidera, eta bigarren aldiz bota zuten.

Faxistak Madrilera hurbiltzen ari dira, eta Urtubi, Nieuport hegazkinean errekonozimendu hegaldia egiten ari dela Fiat hegazkin italiarrek erasotzen dute. Italiarrek jo ta ke atxabaltarraren aurka; gure gizonak etsaiaren hegazkin bat bota du; azkenean bala eta inongo muniziorik gabe, eta zaurituta seguraski, bere hegazkina hurbileko hegazkin faxista baten kontra abiatzen du. Oraingoan biak lurrera, Urtubi ez zen itzuli.

Hidalgo de Cisneros jeneralak, bizirik atera zen piloto italiarrarekin hitzegin zuen, eta kontatzen duenez, ezin zuen hitzik aurkitu Urtubiren balorea deskribatu eta berak egindakoarengatik mirespena azaltzeko. Zoritxarrez, historia, beti, irabazleek kontatzen dute.

LANA

◆ **ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI ELKARTEAK egun erdiz herriko telebistan** lan egiteko pertsona bat kontratatu nahi du. Baloratuko da irudi eta soinu tekniketari ikasketak edo esperientzia izatea eta euskara maila. Curriculumak uztailearen 7a baino lehen Aretxazogazetara ekarri (kultur etxea) edo 151 postakutxatilara bidali.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Bi galdaragin. Urola Erdia. Ref: 9225/1

Txino itzultzailea. Gasteiz. Ref: 9795/3

Harreragilea. Ref: 8002/3

Komertzial teknikaria. Gipuzkoa. Ref: 9145/3

Hezkuntza teknikaria. Donostia. Ref: 9938/0

Sukaldaria. Bilbo Ref: 9342/3

Hiru programadore/analista. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba. Ref: 9719/2

Montajerako sei peoi. Deba Garaia. Ref: 10018/0.

Sei pieza montatzaile. Deba Garaia Ref: 10021/0

Hiru programadore/analista. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba. Ref: 9719/2

Eskaiola eta pladur laguntzailea. Deba Garaia. Ref: 9943/0



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

DENETARIK

◆ Klase partikularrak emango nituzke udan, matematikak, fisika eta kimika. Telefonoa: 943 79 51 19 (Ane).

◆ Irrati programa baterako munduan zehar ibili den jendearekin kontaktuan jarri nahi dugu. Deitu Arrasate irratiko telefono hauetara: 943 79 58 40 (erantzungailua)/943 79 58 77.

BEKAK

◆ **Justo Garate Arriola beka.** Bergarako Udalak Justo Garate Arriola beka kaleratu du. 98ko deialdia Soziologia ikerketari-lanari zuzenduta dago. Iraupena: 11 hilabete. Dirulaguntza: 935.000 pta. Epea: irailaren 1a. Eskabideak eta gainontzeko agiriak helbide honetara bidali behar dira: Bergarako Udala/Kultur Zerbitzuen Batzordea/Justo Garate Arriola beka/San Martin Agirre plaza, 1/20.570 Bergara.

ETXEBIZITZA

◆ Laredon hondartza ondoan dagoen apartamentua alokatzen dut. Tfnoa: 943 79 52 80.

◆ Lokal komertzialak salgai Aretxabaletan. Azalera desberdinetakoak (50 m²-tik 200 m²-tara) Toki egokian eta prezio onean. Tfnoa: 943 77 16 41-79 96 72.

LEHIAKETAK

◆ **Andramaixak iragarriko dituen kartel lehiaketa** antolatu du Aretxabaletako Udal kultura sailak. Lanak uztailearen 10a baino lehenago aurkeztu behar dira kultur etxean.

◆ **Donostia Hiria literatur sariak. Ipuina eta antzerkia** modalitateak sartu ditu Kutxa Fundazioak 98 literatur lehiaketan. Lanak aurkezteko epea urriaren 30ean itxiko da. Saria 700.000 pta ipuin sarituarentzat. Antzerkiaren kasuan 1.200.000 ptakoa da saria.

◆ **Champourcin poesia lehiaketa.** Arabako Diputazioko Kultura Sailak Ernestina de Champourcin IX. poesia lehiaketa antolatu du, euskaraz zein gazteleraz. Lanak urriaren bata baino lehen helarazi behar dira eta arlo bakoitzean irabazleak 250.000 pezeta jasoko ditu.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8 Aralar z/g
Tfnoa: 943 77 17 06 Tfnoa: 943 77 17 04

ARETXABALETA

Gaurik motzena



San Juan bezpera benetan zoragarria izan zen, gau magikoa, sua, kantua, musika eta Santa Ageda mutilen trebeziak tartekatu zituena. Fina aurtengo tantaia edo pinua; ondo moldatu ziren mutilak hau igotzeko. Egun honen aurretik izan zen bestelako jairik. Aurreko eguakotxean **musika eskolako ikasleek** instrumentuak kalera atera eta ikasturtean ikasitakoa erakutsi zuten jendeaurrean. **Kurtzebarri eskolako** guraso, irakasle eta ikasleek, ostera, bazkari zoragarria egin zuten zapatuan. Majo aprobetxatu zuten batzuk ondorengo dantzaldian gorputza mugimenduan jartzeko. Batzuk bazkaria izan zuten bitartean, afaritara bildu zirenak ere asko izan ziren. Despedida eta kinto afariez gain, **HBK 20.** urteurrena ospatzeko afaria antolatatu zuen.

Jaia nagusi den sasoi honetan kirola egiteko konpromezua hartzen dutenak ere badira. Horrela aurreko batean atxabaltar ugari ausartu zen Hiru Haundiak egitera, horien artean: **Oier Etxebarria, Goio**

Arrieta, Jabier Irure, Fernando Uribesalgo, Jesus Maria Saldoval, Karmelo Mendikute, Xabier Basabe, Arrate Arkauz, Anabel Aranzadi eta Jabi Garciak bukatu zuten. Hauek bai sasoiak!

Kiroletan txirringularitzak ere eman du zer kontatu. Haur txirringulari festa oso arrakastatsua izan zela aipatzeaz gain, jokoetan trebeen aritu zirenak honako hauek izan ziren: gaztetxoetan, **Oier Mondragon, Julen Miguel** eta **Igor Okina.** 8-10 urte bitartekoetan, **Jon Martin, Stefanos Amallobieta** eta **Julen Galiano** eta nagusiagoen mailan **Jon Rodriguez, Eñaut Kortabarria** eta **Mikel Iturri.** Sari bereziak, berriz, **Lore Mar** eta **Jon Barrenetxeak** jaso zituzten.

Gazteak ditugu protagonista ondorengo jokuan ere, jokutekakoan hain zuzen ere. Aurtengo jokutekako irabazleak **Ainhoa Egaña** eta **Miren Zubizarreta** izan dira. Beste guztiak ere fin ibili dira eta zorion bero bat guztiei.

Euskara eta Kulturak ere beren aipamena merezi dute gaurkoan, bi baja garrantzitsu ditugu eta. Azken urteetan Loramendiko arduraduna izan den **Jon Ander Loidik** agur esango digu eta **Eneritz Urrutia** izango dugu teknikari berria. Musikak ere badu baja garrantzitsu bat, akordeoi munduan lan izugarria egin duen **Luis Mari Elkorobarrutia.** Hemendik aurrera **Iñigo Madinabeitiak** hartuko du akordeoia erakutsi eta orkestra zuzentzeko ardura. Kasualitatea bada ere Jon Ander eta Luis Mari koadrila berekoak ditugu. Aipamen berezia merezi dute biek herrian egindako lanagatik, baina aurrez Aretxagazetatik pasatu gabe ez diegu aldegiten utziko.

Liburutegiko txokoa

Honako hau Unai Iturriaga bertsolari ezagunak eginiko lehen liburua da. Bertan egile ezagunen poemak agertzen dira ezker aldeko orrialdean eta eskubikoan Iturriagak berak poema horretan inspiratutako komentario edo kontu laburrak sartzen ditu poemaren islada bezala.

Batez ere euskal poesiak bildu ditu hemen idazleak, baina badira Benedetti, Brecht, Pessoa eta kanpoko beste idazle ospatsu batzuen lanak ere.

Gazteei zuzendutako sail batean argitaratua izanik, liburu hau gazteak poesiara hurbiltzeko saio bat dela argi uzten du. Amaieran gainera zerrenda batean jasotzen da poema guztiak nondik hartu dituen, autore horiek hobeto ezagutu nahi duenak jakin dezan nora jo.

Isladak



Isladak

Unai Iturriaga

Alfaguara-Zubia, 1997

UZTAILA

3

egukotxa

DROGEN LEGEZ KANPOKO SALMENTA ETA ERABILERA DESEGOKIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AFAPAK (Arabako Gizakia Helburu-ko Senide eta Lagunen Elkarte-ko Deba Garaiko taldea) drogo-menpekotasunak prebenitzeko Nazioarteko eguna ospatzeko egitarau aberatsa gertatu du. Ekintza guztiak plazan izango dira arratsaldeko 4,30etatik aurrera eta giza kateak irauten duen bitartean txalaparta emanaldia egongo da. Guztiok gonbidatuta zaudete!

“IKAS DEZAGUN MENPEKOTASUNIK GABE BIZITZEN”



Drogomenpekotasunak prebenitzeko Nazioarteko egun honetarako ekintza ugari antolatu du AFAPAK. Giza katea, Loramendi dantza taldearen emanaldia, alkateak irakurriko duen manifestua, fandago eta arin-arin erakusketa, bertsolariak... izango dira arratsaldeko 4,30etatik aurrera plazan.

4

zapatua




ASANBLADA GAZTETXEAN

Gaztetxearen etorkizuna eta funtzionamendua eztabaidatzeko asanblada egingo da arratsaldeko 8etan gaztetxean.

UZTAILEKO KIROL JARDUERAK

Uztaileko kirol jardueretan izen emateko azken egunak zabalik daude oraindik. Praktikatu daitezkeen kirolak: **badminton, tenisa, aerobika, piraguismoa, golfa, eskalada, espeleologia, naturako jarduerak, mendiko bizikleta, orientazio lasterketa....** Izena lehenbailehen eman behar da kiroletxean. Informazio gehiago: 943 79 61 64 telefonoan.



LOGOPEDIA ZENTRUA


Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 943 79 79 46
ARRASATE

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 943 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43


T
X
i
L
A
R
R
A



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 943 79 44 28
ARETXABALETA



ARETXABALETAKO GERRA ZIBILEAN

Aretxabaleako argazki artxibo taldearen eskutik Gerra Zibilaren erakusketa zabalik dago Pagaldaixeneko lokalean ekainaren 28a artean. Astegunez 6etatik 9etara eta astebukaeran goizez 12etatik ordu 2etara edo arratsaldez 6etatik 9etara egongo da ikusgai. Garaiko argazkiak, dokumentuak, kartelak, jantziak, armak eta beste hainbat bitxikeri ikus daitezke bertan.

KERAMIKA IKASTAROA

Oinarrizko keramika ikastaroa emango du Mari Jose Fuensantak ekainaren 30ean hasita, martizen eta eguenetan 6etatik 8etara. Kultur etxean izena eman daiteke 3.000 pta. ordainduz.



Keramika ikastaroa uztailean hasiko da

OPEL



Zerbitzu Ofiziala

■ *Kotxe marka guztien konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 943 79 62 65 / 79 20 86
Fax: 77 17 20 ARETXABALETAKO



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	088
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



23 urteko atxabaltar honek, herria oso maite du. Herritik kanpo bere burua ikusten ez duela ere ziurtatu digu Leirek. Goizez, Hezkuntza Bereziko ikasketak egiten ditu, arratsaldez, berriz, ludotekan izaten da. Beti harantza eta honantza dabil, gauza bat edo beste egiten.

• Zergatik aukeratu zenuen ikasketak hau?

Haurrak betidanik gustatu izan zaizkidalako.

• Haurrengan asko dago ikasteko?

Uste duguna baino gehiago gainera.

• Ludotekan zein jolas mota egin daiteke?

Denetatik. Ludoteka hiru txokotan banatuta dago. Alde batetik etxeko txokoa dago, panpinekin... jolasteko

“Haurrengan uste duguna baino gehiago dago ikasteko”

erabiltzen dena. Beste alde batetik mahaien txokoa dago, marrazkiak eta mahai jolasak egiteko aproposa berau. Azkenik hirugarren txokoa eraikuntzena da.

• Zeintzuk dira ludotekaren helburuak?

Herriko haurrak elkarren artean ezagutuz euskara bultzatzea eta ondo pasatzea. 4-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

• Jolasetan ikusten da desberdintasunik neska eta mutilen artean?

Bai, baina gero eta gutxiago. Etxeko txokotan nabari da desberdintasun handiena.

• Zer da haurrengan gehien gustatzen zaizuna?

Egixa esaten dutela.

• Ama izatekotan zenbat haurrena?

Pentsatu ere ez dut egin. Niri beste batzuen haurrak gustatzen zaizkit.

• Zergatik dago gero eta haur gutxiago?

Bizi garen gizarteagatik.

• Euroak arazoak ekarriko ditu?

Etorkizunean ez dakit. Momentuz behintzat burukomin handia ematen du.

• Zer falta zaio herriari?

Gaztetxe on bat, baita Kepa eta Axu

ere.

• Etxean egotea gustoko duzu?

Ez.

• Liburu bat?

Euskaldunak eta espainolak.

• Amets bat?

Euskal Herri libre bat.

• Zerk beldurtzen zaitu?

Dagoen zikinkeriak.

• Zein kontzertutara joatea gustatuko litzaizuke?

La Polla Record eta Doctor Deseo.

Laister Eskoriatzan egongo da gainera.

• Zer aldatuko zenuke

Aretxagazetan?

Kolaboratzeko aukera gehiago emango nuke. Bidaltzen den guztia argitaratzea.

• Nola moldatu zara telefonoko 9 zenbakietara?

Uff! Txarto, oso txarto.

• 35 lan orduen aldekoa zara?

Bai.

• Ekintza berririk Andamaixetarako?

Txosnetako giroa indartuko nuke.

• Pertsona historiko bat?

Euskal Herriarengatik lan egiten duten guztiak.

• Kotxea beharrezkoa ikusten duzu?

Zoritxarrez, askotan bai.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe





Clio

BERRIA

MUGARIK GABE
MURRIZKETARIK GABE

MECA

San Andres auzoa, 8 Amillaga, 5
ARRASATE **BERGARA**

FORD

Galaxy

BERRIA

ORAIN TDI 110 CV
3.275.000 PTA. TIK AURRERA



Mondeo

Liderrak
prezio-kalitatean



hitz egin dezagun
902 442 442
www.ford.es

RS 24V 170CV 3.500.000 pta

GHIA 16V 130CV 2.800.000 pta

GHIA TD 90CV 2.700.000 pta

CLX 16V 115CV/TD 90CV 2.350.000 pta

Norbaitek Mondeo bat daukanean, 4 edo 5 ateduna, nahiz eta eragonezko delakoa, edozein ibilbide egiten zaio laburregia. Izan ere, gidatzeak sortzen duen zirrarak benetan gozatzeko dutenek, Mondeo batekin inoiz baino gehiago gozatuko baitute errepideaz. Duen zehaztasunagatik, leuntasunagatik, egonkortasun berebizikoagatik, galga ematerakoan duen erantzunagatik, erabilasunagatik, bukatze mailagatik eta, noski, bere itxura erakargarriagatik. Mondeo bat inoiz frogatu ez duten horietakoa bazara, oraintxe duzu bat gidatzeko aukera.

DEBA GARAICO
KONTZESIONARIO
OFIZIALA

MUGARRI

Araba Forbidea z/a • ARRASATE • Tel: 943 79 07 44 / 54

